Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala · Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko urtarrilaren 17a, ostirala · 11 · Viernes, a 17 de enero de 2020

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA · 2 · ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*650/2019 Foru Agindua, abenduaren 26koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez euskarri informatikoko kontabilitate-sistema baten bidez fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea eramateko obligazioa betetzeko gizarte-lankidetzaren baldintzak onartzen dituena.*

Fabrikazio zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea eramateko betebeharra arautzen duen abenduaren 4ko FA-OG-2019-0578 Foru Aginduaren 7. artikuluak jasotakoari jarraituz, kontabilitate idazpenen bidalketa elektronikoa egin ahalko dute, besteak beste, akordio edo hitzarmenen bidez behar bezala baimendutako gizarte laguntzaileek.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 89. artikuluaren 1. apartatuan ezartzen duenez, tributuen aplikazioak behar duen gizarte lankidetza bideratzeko, Zerga Administrazioak akordioak izenpe ditzake beste herri administrazio batzuekin, entitate pribatuekin edo sektore edo interes sozial, laboral, enpresarial edo profesionalen ordezkari diren erakunde eta organismoekin, eta, bereziki, zerga aholkularitzan jarduten duten profesionalen elkargo eta elkarteekin, azken horien kasuan, zerga betebeharren konplimendu kooperatiboa indartzeko egiten duten lana erraztearren.

Bestetik, artikulu horren bigarren apartatuak aurreikusten du teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzea dio gizarte lankidetza bideratzeko.

Esparru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren iritziz, beharrezkoa da zerga kudeaketan gizarte lankidetza sustatzea, zergadunen onerako den aldetik.

Honenbestez, hau

EBAZTEN DUT

*1. artikulua. Lankidetza akordioaren onarpena.*

Onartu egiten da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko Lankidetza Akordioa, fabrikaziozerga berezien xede diren produktuen kontabilitate-idazpenenak hirugarrengoen ordezkari gisa elektronikoki bidaltzeko (I. eranskinean jasotzen dena).

*2. artikulua. Fakturazio erregistroak elektronikoki bide telematikoz bidaltzeko gizarte lankidetza.*

Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez fabrikazio-zerga berezien xede diren produktuen kontabilitate-idazpenen bidalketa elektronikoa egin ahal izango dute kontabilitatean aipatzen den establezimenduaren ordezkari gisa jarduten dutenek, betiere honako hauek guztiak betetzen badituzte:

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 650/2019, de 26 de diciembre, por la que se aprueban los términos de la colaboración social en el cumplimiento de la obligación de llevanza de contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación mediante un sistema contable en soporte informático a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

El artículo 7 de la Orden Foral FA-OG-2019-0578, de 4 de diciembre, por la que se regula el cumplimiento de la obligación de llevanza de contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación, dispone que el suministro electrónico de los asientos contables podrá ser efectuado, entre otros, por colaboradores sociales debidamente autorizados a través de los oportunos acuerdos o convenios.

La Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa establece en el apartado 1o del artículo 89 que la colaboración social en la aplicación de los tributos podrá instrumentarse a través de acuerdos de la Administración tributaria con otras Administraciones públicas, con entidades privadas o con instituciones u organizaciones representativas de sectores o intereses sociales, laborales, empresariales o profesionales y, específicamente, con el objeto de facilitar el desarrollo de su labor en aras de potenciar el cumplimiento cooperativo de las obligaciones tributarias, con los colegios y asociaciones de profesionales de la asesoría fiscal.

Por su parte, el apartado segundo del citado artículo contempla el ejercicio de la colaboración social mediante la utilización de técnicas y medios electrónicos, informáticos y telemáticos.

En este marco, el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa considera necesario potenciar la colaboración social en la gestión de tributos, en la medida en que redunda en beneficio de los contribuyentes.

En su virtud,

RESUELVO

*Artículo 1. Aprobación del Acuerdo de colaboración social.*

Se aprueba el Acuerdo de Colaboración con el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el suministro electrónico de los asientos contables de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación en representación de terceros, que se recoge como anexo I.

*Artículo 2. Colaboración social en el suministro electrónico de información sobre los registros de facturación por vía telemática.*

El suministro electrónico de los asientos contables de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá ser efectuado por quienes actúen en representación del establecimiento al que se refiere la contabilidad, siempre que cumplan todos y cada uno de los siguientes requisitos:

EK\CV GAO-I-2020-00113

a) Atxikitzea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko Lankidetza Akordioari, fabrikazio-zerga berezien xede diren produktuen kontabilitate-idazpenenak hirugarrengoen ordezkari gisa elektronikoki bidaltzeko.

b) Gipuzkoako Foru Aldundian onartutako ziurtagiri elektroniko balioztatua edo kualifikatua izatea.

c) Jarduten den kontabilitatean aipatzen den establezimenduaren ordezkaritza nahikoa izatea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Arau Orokorrak 46. artikuluan eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 5. artikuluan jasotakoari jarraituz.

Aipatutako ordezkaritza frogatzeko baliagarria izango da Foru Agindu honen II eranskinean jasotzen den agiri normalizatua.

*3. artikulua. Lankidetza Akordioari atxikitzea, laguntzaile gisa jarduteko baimena galtzea eta borondatezko baja ematea.*

1. Atxiki nahi bazaio fabrikazio-zerga berezien xede diren produktuen kontabilitate-idazpenenak hirugarrengoen ordezkari gisa elektronikoki bidaltzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko Lankidetza Akordioari Foru Agindu honen III. eranskinean jasotako atxikimendu agiria bete eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan kokatutako erregistro elektronikoaren bidez bidali beharko da.

Ogasun eta Finantza Departamentuak egiaztatuko du, Idazkaritza Teknikoaren bitartez, foru agindu honen 1. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen direla. Beharkizunak betez gero, atxikimendua balioztatu egingo da, eta aurkezpen telematikorako programan sartzea baimenduko da.

2. Izapidetzeko betebeharrak betetzean edota sarbideak erabiltzean anomaliak edo irregulartasunak antzematen badira, Departamentuak, zerga kudeatzen duen zerbitzuaren bitartez, kautelaz eten ahalko du dagokion programarako sarbidea.

10 egun balioduneko epean, eta egiaztapenak aintzat hartuta, kautelazko etena kenduko da edo, bestela, aginduko da espedientea hasi dadila emandako baimena indarrik gabe uzteko, hala badagokio. Horrelakoetan, Departamentuak, interesdunari entzun eta gero, ondoriorik gabe utzi dezake atxikimendua eta emandako baimena kendu.

3. Borondatezko baja eman nahi bada fabrikazio-zerga berezien xede diren produktuen kontabilitate-idazpenenak hirugarrengoen ordezkari gisa elektronikoki bidaltzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekin lankidetzan aritzea helburu duen Akordioan Foru Agindu honen IV. eranskinean jasotako atxikimendu agiria betez eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan kokatutako erregistro elektronikoaren bidez bidaliz eskatu ahal izango da.

*Azken xedapena.*

Foru Agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2019ko abenduaren 26a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(113)

a) Adherirse al Acuerdo de Colaboración con el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el suministro electrónico de los asientos contables de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación en representación de terceros.

b) Disponer de un certificado electrónico reconocido o cualificado admitido ante la Diputación Foral de Gipuzkoa.

c) Ostentar la representación suficiente del establecimiento al que se refiere la contabilidad en cuyo nombre se actúe en los términos establecidos en el artículo 46 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en el art. 5 de la ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Común de las Administraciones Públicas.

Para la acreditación de dicha representación será válido el documento normalizado que se recoge como anexo II de la presente Orden Foral.

*Artículo 3. Adhesión al Acuerdo de Colaboración, pérdida de la autorización para actuar como colaboradora y baja voluntaria.*

1. La adhesión al Acuerdo de Colaboración con el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el suministro electrónico de los asientos contables de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación en representación de terceros se realizará mediante la cumplimentación y remisión a través del registro electrónico ubicado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa del documento de adhesión que consta como anexo III a la presente Orden Foral.

El Departamento de Hacienda y Finanzas, a través de la Secretaría Técnica, comprobará el cumplimiento de los requisitos previstos en el artículo 1 de la presente Orden Foral. En caso de cumplimiento, se dará validez a la adhesión y acceso al programa para la presentación telemática.

2. Cuando sean advertidas anomalías o irregularidades en el cumplimiento de las obligaciones de tramitación y/o en la utilización de accesos, el Departamento, a través del servicio gestor del impuesto, podrá suspender cautelarmente el acceso al correspondiente programa.

En el plazo de 10 días hábiles, a la vista de las comprobaciones realizadas, levantará la suspensión o instará la iniciación del expediente para, en su caso, dejar sin efecto la autorización otorgada. En este caso el Departamento, previa audiencia a la persona interesada, podrá dejar sin efecto la adhesión y retirar la autorización otorgada.

3. La baja voluntaria del «Acuerdo de Colaboración con el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el suministro electrónico de los asientos contables de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación en representación de terceros» podrá solicitarse mediante la cumplimentación y remisión a través del registro electrónico ubicado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa del documento de adhesión que consta como anexo IV a la presente Orden Foral.

*Disposición final.*

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 26 de diciembre de 2019.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia.

(113)

EK\CV GAO-I-2020-00113

I. ERASKINA

*Akordioa, fabrikazio zerga berezien xede diren produktuen kontabilitate-idazpenenak hirugarrengoen ordezkari gisa elektronikoki bidaltzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekin lankidetzan aritzea helburu duena.*

*Lehena.* Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunak 33. artikuluan ezartzen du zerga bereziak tributu itunduak direla, Estatuak une bakoitzean ezarrita dauzkan arau substantibo eta formal berberak aplikatuta arautuko direnak.

Bestalde, Ekonomia Itunaren lehen xedapen gehigarriak esaten du lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek Ekonomia Ituna aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak ematen ez dituzten artean, lurralde erkidean indarrean dauden arauak aplikatuko direla, eta arau horiek zuzenbide osagarri izango direla beti.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan zerga berezien erregulazioak ez duenez erregelamenduzko garapenik aplikatzekoa da uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Zerga Berezien Erregelamendua.

Erregelamendu horren 50. artikuluak xedatzen du fabrikazio zerga berezien araudiaren menpe dauden establezimenduak behartuta daudela zerga horiei lotutako produktuen kontabilitatea eramatera eta, hala denean, baita produktu horiek lortzeko beharrezkoak diren lehengaiena ere; eta, fabrikak, gordetegi fiskalak, harrera gordetegiak, biltegi fiskalak eta ozpin fabrikak direnean, zerga berezien kontabilitatea eramateko obligazioa euskarri informatikoko kontabilitate sistema baten bitartez beteko da, zerga administrazioaren egoitza elektronikoan, kontabilitate idazpenen horniketa elektronikoa egoitza horretan eginez.

*Bigarrena.* Abenduaren 4ko FA-OG-2019-0578 Foru Aginduak arautzen du fabrikazio zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea euskarri informatiko bat erabiliz eramateko betebeharra, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez kontabilitate sistema, eta bere 7. artikuluan jasotakoari jarraituz, kontabilitate idazpenen bidalketa elektronikoa egin ahalko dute, besteak beste, akordio edo hitzarmenen bidez behar bezala baimendutako gizarte laguntzaileek.

*Hirugarrena.* Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 89. artikuluan ezartzen duenez, tributuen aplikazioak behar duen gizarte lankidetza bideratzeko, Zerga Administrazioak akordioak izenpe ditzake beste herri administrazio batzuekin, entitate pribatuekin edo sektore edo interes sozial, laboral, enpresarial edo profesionalen ordezkari diren erakunde eta organismoekin, eta, bereziki, zerga aholkularitzan jarduten duten profesionalen elkargo eta elkarteekin, azken horien kasuan, zerga betebeharren konplimendu kooperatiboa indartzeko egiten duten lana erraztearren.

Bestetik, artikulu horren bigarren apartatuak dio gizarte lankidetza bideratzeko zilegi dela teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzea. Lan ildo horren barruan, eta gizarte lankidetzak zergadunei ematen zaien zerbitzua hobetu dezan, ezinbestekoa da prozedura arin eta praktikoak ezartzea.

*Laugarrena.* Aurrekoaren ondorioz, Ogasun eta Finantza Departamentuaren iritziz, bere eskumenak erabiliz eta kudeaketa eraginkorrari lotutako arrazoiengatik, komenigarria da lankidetzarako baldintzak ezartzea, kanpoko laguntzaileek parte hartzea herritarrek obligazio fiskalak betetzeko lagungarria den aldetik.

Horrenbestez, estipulazio hauek ezartzen dira:

ANEXO I

*Acuerdo de colaboración con el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el suministro electrónico de los asientos contables de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación en representación de terceros.*

*Primero.* El artículo 33 del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, establece que los impuestos especiales tienen el carácter de tributos concertados que se regirán por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado.

Asimismo, la disposición adicional primera del Concierto Económico establece que hasta tanto se dicten por las instituciones competentes de los territorios históricos las disposiciones necesarias para la aplicación del Concierto Económico, se aplicarán las normas vigentes en territorio común, las cuales, en todo caso, tendrán carácter de derecho supletorio.

En ausencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa de desarrollo reglamentario de la regulación de impuestos especiales, resulta de aplicación el Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio.

El artículo 50 del citado Reglamento dispone que los establecimientos afectados por la normativa de los impuestos especiales de fabricación deberán llevar una contabilidad de los productos objeto de dichos impuestos, así como, en su caso, de las materias primas necesarias para obtenerlos y, en el caso de fábricas, depósitos fiscales, depósitos de recepción, almacenes fiscales y fábricas de vinagre, el cumplimiento de la obligación de llevanza de la contabilidad de los impuestos especiales se realizará mediante un sistema contable en soporte informático, a través de la sede electrónica de la administración tributaria, con el suministro electrónico de los asientos contables en la referida sede.

*Segundo.* La Orden Foral FA-OG-2019-0578, de 4 de diciembre, regula el cumplimiento de la obligación de llevanza de contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación mediante un sistema contable en soporte informático, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y en su artículo 7 dispone que el suministro electrónico de los asientos contables podrá ser efectuado, entre otros, por colaboradores sociales debidamente autorizados a través de los oportunos acuerdos o convenios.

*Tercero.* El artículo 89 de la Norma Foral 2/2005, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa establece que la colaboración social en la gestión de los tributos podrá instrumentarse a través de acuerdos de la administración tributaria con otras administraciones públicas, con entidades privadas o con instituciones u organizaciones representativas de sectores o intereses sociales, laborales, empresariales o profesionales y, específicamente, con el objeto de facilitar el desarrollo de su labor en aras de potenciar el cumplimiento cooperativo de las obligaciones tributarias, con los colegios y asociaciones de profesionales de la asesoría fiscal.

Por su parte, el apartado segundo del citado artículo contempla el ejercicio de la colaboración social mediante la utilización de técnicas y medios electrónicos, informáticos y telemáticos. Dentro de esta línea de actuación, y para que la colaboración social mejore el servicio ofertado a los contribuyentes, es imprescindible establecer procedimientos ágiles y prácticos.

*Cuarto.* Como consecuencia de lo anterior, el Departamento de Hacienda y Finanzas, en el ejercicio de sus competencias y por razones de eficacia en la gestión, considera conveniente establecer las condiciones para la colaboración en la medida en que la participación de colaboradores externos coadyuva al cumplimiento de las obligaciones fiscales por parte de la ciudadanía.

De conformidad con lo expuesto, se fijan las siguientes:

EK\CV GAO-I-2020-00113

ESTIPULAZIOAK

*Lehena. Xedea.*

Akordio honen xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta akordioari atxikitzen zaion pertsonaren arteko lankidetzaren baldintzak ezartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan fabrikazio zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea elektronikoki bidaltzeko zerbitzua emate aldera. Hona hemen baldintzak:

1. Ogasun eta Finantza Departamentuak akordioari atxikitzen zaion pertsona baimentzen du fabrikazio-zerga berezien xede diren produktuen kontabilitate-idazpenenak hirugarrengoen ordezkaritzan elektronikoki bidali ditzan, aplikaziozko araudian jarritako kasuetan eta baldintzetan.

2. Hirugarrengoen ordezkaritzan aitorpenen, komunikazioen eta beste zerga agiri batzuen aurkezpen telematikoari buruzko araudiari jarraituz, bidalketa hori egin ahal izateko, akordioari atxikitzen zaion pertsonak honako hau egin beharko du:

— Ziurtagiri elektroniko balioztatua izatea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz izateko onargarria dena.

— Jarduten den kontabilitatean aipatzen den establezimenduaren ordezkaritza nahikoa izatea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Arau Orokorrak 46. artikuluan eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 5. artikuluan jasotakoari jarraituz.

Ogasun eta Finantza Departamentuak haren ordezkaritza frogatzeko eskatu ahal izango dio edozein unetan. Horretarako, baliagarria izango da akordio hau onartzen duen Foru Aginduaren II eranskin gisa jasotzen den agiri normalizatua.

— Betetzea izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizaturako izaera horretako datuak babesteko araudiak ezarritako baldintzak.

— Lotzea aitorpenen, komunikazioen eta bestelako zerga agiriak aurkezpen telematikoari buruzko araudian ezarritako prozedurara eta gainerako baldintzetara.

3. Ogasun eta Finantza Departamentuak beharrezkoa den laguntza teknikoa emango du Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez fabrikazio zerga berezien xede diren produktuen kontabilitate idazpenak elektronikoki bidaltzeko zerbitzua garatu ahal izateko.

*Bigarrena. Aldeen betebeharrak.*

Akordio hau sinatzen duten aldeek ahalik eta zintzoen eman beharko diote lankidetza elkarri, bilatutako helburuak ahal den ondoen lortzeko.

Akordio honen edozein exijentzia ez betetzeak berekin ekarriko du harekiko atxikimenduari baja ematea, interesdunari entzunda espedientea ireki ondoren.

Beren izenean dokumentazioa aurkezten zaien establezimenduaren ordezkaritza nahikorik ez izateak berekin ekarriko du bidezkoak diren erantzukizunak eskatzea.

*Hirugarrena. Araubide juridikoa.*

Akordio hau xedapen hauetan jasotakoaren arabera arautuko da: 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 89. artikuluan; uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Zerga Berezien Erregelamenduko 50. artikuluan, abenduaren 28ko 1512/2018 Errege Dekretuko laugarren artikuluaren bidez aldatua; fabrikazio zerga berezien xede diren produktuen kontabi-

ESTIPULACIONES

*Primera. Objeto.*

El presente acuerdo tiene por objeto establecer las condiciones que han de regir la colaboración entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y por la persona que se adhiere, para la prestación del servicio de llevanza de contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en los siguientes términos:

1. El Departamento de Hacienda y Finanzas autoriza a la persona que se adhiere para el suministro electrónico de los asientos contables de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación en representación de terceros en los supuestos y condiciones establecidos en la normativa de aplicación.

2. De acuerdo con lo establecido en la normativa que regula la presentación telemática de declaraciones, comunicaciones y otros documentos tributarios en representación de terceras personas, para que la persona que se adhiere pueda realizar dicho suministro electrónico deberá:

— Disponer de un certificado electrónico reconocido que resulte admisible para relacionarse por medios electrónicos con la administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Ostentar la representación suficiente de del establecimiento al que se refiere la contabilidad en cuyo nombre se actúe en los términos establecidos en el artículo 46 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en el artículo 5 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Común de las Administraciones Públicas.

El Departamento de Hacienda y Finanzas podrá instar en cualquier momento la acreditación de su representación, siendo válido el documento normalizado que se adjunta como anexo II de la Orden Foral que aprueba el presente acuerdo.

— Cumplir los requisitos exigidos en la normativa de protección de datos de carácter personal para el tratamiento automatizado de dichos datos.

— Sujetarse al resto de las condiciones y al procedimiento establecido en la correspondiente normativa que regula la presentación telemática de declaraciones, comunicaciones y otros documentos tributaros.

3. El Departamento de Hacienda y Finanzas proporcionará la asistencia técnica necesaria para el desarrollo de este sistema de suministro electrónico de los asientos contables de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Segunda. Obligaciones de las partes.*

El presente acuerdo obliga a las partes a prestarse la adecuada colaboración para conseguir el mejor logro de los fines perseguidos.

El incumplimiento de cualquiera de las exigencias de este acuerdo supondrá la baja de la adhesión al mismo, previa instrucción del correspondiente expediente con audiencia a la interesada.

La falta de representación suficiente de los establecimientos en cuyo nombre se hubiera presentado la documentación dará lugar a la exigencia de las responsabilidades que fueran procedentes.

*Tercera. Régimen jurídico aplicable.*

El presente acuerdo se regirá por lo dispuesto en el artículo 89 de la Norma Foral 2/2005, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa; en el artículo 50 del citado Reglamento del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, modificado por el artículo cuarto del Real Decreto 1512/2018, de 28 de diciembre; en la Orden Foral FA-OG-2019-0578, de 4 de diciembre, por la que se

EK\CV GAO-I-2020-00113

litatea arautzen duen abenduaren 4ko FA-OG-2019-0578 Foru Aginduan; eta akordio hau onartzen duen Foru Aginduan.

regula el cumplimiento de la obligación de llevanza de contabilidad de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación; y en la Orden Foral por la que se aprueba el presente acuerdo.

EK\CV GAO-I-2020-00113

II ERANSKINA

ANEXO II

**BAIMENA, FABRIKAZIO-ZERGA BEREZIEN XEDE DIREN PRODUKTUEN KONTABILITATE-IDAZPENENAK ELEKTRONIKOKI BIDALTZEKO**

**AUTORIZACIÓN PARA EL SUMINISTRO ELECTRÓNICO DE LOS ASIENTOS CONTABLES DE LOS PRODUCTOS OBJETO DE LOS IMPUESTOS ESPECIALES DE FABRICACIÓN**

**ORDEZKARIA / REPRESENTANTE**

| | |
|---|---|
| ***IFZ/NIF*** | ***Deiturak eta izena edo sozietate izena / Apellidos y nombre o Razón Social*** |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ***Zerga helbidea / Domicilio fiscal*** | **Zk. / Núm.** | **Letra Letra** | **Eskail. / Escal.** | **Oina Piso** | **Eskua / Mano** | **Tfno.** |

| | | |
|---|---|---|
| ***Udalerria / Municipio*** | ***Posta kodea Código Postal*** | ***Lurralde Historikoa /Probintzia Territorio Histórico / Provincia*** |
| ***Ordezkaria entitate bat denean bakarrik / Sólo si la representante es una entidad*** | ***Ordezkariaren IFZ / NIF del representante*** | ***Ordezkariaren deiturak eta izena / Apellidos y del representante*** |

**ORDEZKATUTAKO ESTABLEZIMENDUA / ESTABLECIMIENTO REPRESENTADO**

| | |
|---|---|
| ***IFZ/NIF*** | ***Deiturak eta izena edo sozietate izena / Apellidos y nombre o Razón Social*** |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ***Zerga helbidea / Domicilio fiscal*** | **Zk. / Núm.** | **Letra Letra** | **Eskail. / Escal.** | **Oina Piso** | **Eskua / Mano** | **Tfno.** |

| | | |
|---|---|---|
| ***Udalerria / Municipio*** | ***Posta kodea Código Postal*** | ***Lurralde Historikoa /Probintzia Territorio Histórico / Provincia*** |
| ***Ordezkaria entitate bat denean bakarrik / Sólo si la representante es una entidad*** | ***Ordezkariaren IFZ / NIF del representante*** | ***Ordezkariaren deiturak eta izena / Apellidos y del representante*** |

**ORDEZKARITZAREN EDUKIA / CONTENIDO DE LA REPRESENTACIÓN**

Fabrikazio-zerga berezien xede diren produktuen kontabilitate-idazpenenak elektronikoki bidaltzea.

Baimen hau aipatutako hornidura elektronikora mugatzen da, eta bidalketa egiten duenari ez dio ematen baimen-emaile establezimenduaren izenean ordezkari moduan jarduteko ahalmenik beste egintza batzuetan esku hartzeko, ezta zerga administrazioaren inolako komunikaziorik jasotzeko, nahiz eta komunikazio horiek eginiko hornidura elektronikoaren ondorio izan.

Suministrar electrónicamente los asientos contables de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación.

La presente autorización se circunscribe al mencionado suministro electrónico, sin que confiera quien lo realice la condición de representante para intervenir en otros actos, ni le faculte para recibir ningún tipo de comunicaciones de la administración tributaria en nombre del establecimiento autorizante, aun cuando éstas fueran consecuencia del suministro electrónico realizado.



EK\CV GAO-I-2020-00113

**ORDEZKARITZAREN IRAUPENA / VIGENCIA DE LA REPRESENTACIÓN**

Ordezkaritza hau indarrean egongo da, eta ondorio guztiak sortuko ditu, ordezkariak hari uko egin arte edo ordezkatuak baimena errebokatu arte. Bai ukoa eta bai errebokazioa idatziz komunikatu beharko zaio Ogasun eta Finantza Departamentuaren Idazkaritza Teknikoari. /

Esta representación mantendrá su vigencia, surtiendo plenos efectos, en tanto en cuanto no se comunique la renuncia del representante o la revocación de la autorización por el representado mediante comunicación escrita dirigida a la Secretaría Técnica del Departamento de Hacienda y Finanzas.

| | | |
|---|---|---|
| Data<br>Fecha | Ordezkatutako establezimenduaren izenean:<br>Por el establecimiento representado:<br><br><br>Sin (Izen abizenak):<br>Fdo. (Nombre y apellidos):<br>NA/DNI: | Ordezkariaren izenean:<br>Por el o la representante:<br><br><br>Sin (Izen abizenak):<br>Fdo. (Nombre y apellidos):<br>NAN/DNI: |

Inprimaki honetako datuak Foru Ogasunaren zerga kudeaketa eta zerga bilketa helburu duten fitxategietan sartuko dira.

Izaera pertsonaleko datuak babesteko araudian ezarritakoari jarraituz, horiek atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak baliatu daitezke egoitza elektronikoaren bitartez, edo dagokion idatzizko eskaera Ogasun eta Finantza Departamentuko Idazkaritza Teknikoari bidaliz Donostiako Errotaburu pasealekua, 2 helbidera.

Los datos de este impreso se incorporarán a los ficheros informáticos de la Hacienda Foral para fines tributarios.

En cumplimiento de lo dispuesto en la normativa de protección de datos personales, se podrán ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición a través de la sede electrónica, o remitiendo la correspondiente solicitud escrita a la Secretaría Técnica del Departamento de Hacienda y Finanzas (Paseo Errotaburu, 2. San Sebastián).

## III eranskina

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko lankidetza-akordioari atxikitzeko dokumentua, fabrikazio-zerga berezien xede diren produktuen kontabilitate-idazpenak hirugarrenen ordezkari gisa elektronikoki bidaltzeko

………………………………………………………. jaunak/andreak, IFZ …….. zenbakidunak, IFZ ……….. duen ………………… enpresaren izenean eta ordezkaritzan (halakorik bada),

ADIERAZTEN DU bere borondatea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko lankidetza akordioari atxikitzeko, hirugarrenen ordezkari gisa fabrikazio-zerga berezien xede diren produktuen kontabilitate-idazpenak elektronikoki bidaltzeko.

Sinatzaileak lankidetza akordioaren eduki osoa ezagutzen du, eta bere gain hartzen ditu, eta berariaz eta modu argian, akordiotik ondorioztatzen diren betebehar guztiak.

## Anexo III

Documento de adhesión al acuerdo de colaboración con el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el suministro electrónico de los asientos contables de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación en representación de terceros

D./Dña. …………………………………… con NIF…………., en nombre y representación de la empresa ……………………………(si fuera el caso) con NIF ……………………...,

DECLARA su voluntad de adherirse al acuerdo de colaboración con el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el suministro electrónico de los asientos contables de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación en representación de terceros.

La persona firmante conoce el contenido íntegro del citado acuerdo de colaboración al que se adhiere, asumiendo de forma expresa e inequívoca las obligaciones dimanantes del mismo.

Atxikimenduak berekin dakar lankidetza akordioaren edukia oso-osorik eta baldintzarik gabe onartzea.

………..…, 20…(e)ko ………….aren ……a

Sin.:

IV eranskina

*Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko lankidetza-akordioari atxikitzeko dokumentua, fabrikazio-zerga berezien xede diren produktuen kontabilitate-idazpenak hirugarrenen ordezkari gisa elektronikoki bidaltzeko.*

*Borondatezko baja*

………………………………………………………. jaunak/andreak, IFZ …….. zenbakidunak, IFZ ………… duen ………………… enpresaren izenean eta ordezkaritzan (halakorik bada), agiri honen bidez adierazten du baja hartu nahi duela Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekin lankidetzan aritzeko akordioan, hain zuzen ere fakturazio elektronikoak hirugarrengoen ordezkaritzan elektronikoki bidaltzeko atxikitutakoan.

………..…, 20…(e)ko ………….aren ……a

Sin.:

La adhesión conlleva en todo caso la aceptación incondicionada e íntegra del contenido del acuerdo de colaboración.

…………………, a … de ……………de 20..

Fdo.

Anexo IV

*Acuerdo de colaboración con el Departamento de Hacienda y Finanzas de la dipuTación Foral de Gipuzkoa para el suministro electrónico de los asientos contables de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación en representación de terceros.*

*Baja voluntaria*

D./Dña. …………………………………… con NIF………….., en nombre y representación de la empresa……………………………(si fuera el caso) con NIF ……………………... declara mediante el presente documento su voluntad de darse de baja del Acuerdo de Colaboración con el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el suministro electrónico de registros de facturación en representación de terceros.

…………………, a … de ……………de 20..

Fdo.: